

Haizeteak eragindako kalteen ikuskapena eginda, horien konponketan murgilduta daude udal langileak

- Haize bortitzaren ondorioz hainbat interbentzio egin behar izan zituzten brigadako langile, udaltzain, ertzain eta suhiltzaileek.
- Egoera bere onera ekartzeko lanean ari dira udal langileak.

Andoainen, 24-11-25.- Igandeko alerta laranja hainbat gora-behera eragin ditu herrian zehar. Haize bolada bortitzek zenbait kalte eragin dituzte han eta hemen, eta astelehen honetan horien ikuskapenean igaro dute udal langileak. Lehentasunezko lanen artean izan dira:

-Pertsonentzat oztopo izan zitezkeen eremuen garbiketa, horien artean, errepide eta galtzadarena; baita haizeak lekuz mugitutako edukiontzia euren jatorriko lekura itzultzea ere. Eroritako adaxka eta zuhaitz zati txikiak piletan jaso dira, eta astean zehar eramango dituzte.

-Auzo guztietarako sarbideak bermatzea, batez ere, kanpoaldean kokatzen diren auzoena edo baserrietarako bideena.

Gainerakoan, haizeak eragin dituen kalteen artean nabarmentzen dira:

-Kiroldegia: Kantxako beirategiaren zati bat eraman zuen haizeak eta horren ondorioz, eskubaloiko euskal selekzioaren eta Britainia Handiaren arteko partida bertan behera geratu zen. Hori dela eta, bertan behera geratu dira kantxan egiten diren ikastaroak, eta itxita egongo da eremu kardiobaskularra ere. Aurre-ikusten da bihar, astearte eguerdirako zabaltzeko moduan izango dela; edonola, emango da horren berri. Igerilekuan, berriz, sabai zati bat eraman du haizeak, eta itxita egongo da, gutxienez, bi astez. Irekieraren berri ere jakinaraziko da. Eguzki plakek ere kalteak jasan dituzte.

-Goiburuko frontoia: haizeak sabaiko teilak bota zituen errepidera; horiek garbiketa eta konponketa lanekin hasiko dira.

-Leizaran bailara: Haizeak adar eta zuhaitz ugari bota zituen, eta horietako asko pasabideetara. Apurka horien garbiketa egingo da.

-Gabonetako argiak: haizearen ondorioz kalteak jasan dituzte zenbaitek, euren lekuan berrezarriko dira hurrengo egunetan.

Nabarmenezkoa da teila baten erorketaren ondorioz pertsona bat artatu behar izan zutela larrialdietako langileek, baina arriskuz kanpo dago herritarra.

Lerro hauen bitartez, udal gobernuak eskerrak eman nahi dizkie azken orduetan herritarren segurtasuna bermatzeko lanean jardun duten udal behargin, udaltzain, ertzain eta suhiltzaileei.